

BALIOZKO PROPOSAMENA



Zergaitik gure proposamena aukeratu besteena baino lehen? Zein da proposatzen dugun konponbidea?

Gure enpresarekin lortu nahi dugun helburua, ozeanoetako kutxadura maila murriztea da, ingurumenaren babesa eta gure osasunaren hobekuntza lortzeko. Ozeanoak gure planetako ekosistema ezinbestekoak dira, eta horietan plastikoaren presentzia handia da, gure itsas fauna eta flora arriskuan jartzen dituen. Horregatik, hondartzetan, buiak kokatzen diren lekuetan sare batzuk jarriko ditugu, eta modu honetan plastikoa ozeano barrura gutxiago sartzea saihestuko dugu. Ekintza hauek ezinbestekoak dira, ozeanoetan plastikoaren presentzia murrizteko, eta, nahiz eta ez dugun kutxadura osoarekin bukatuko, aurrera egiten jarraitzeko aukera emango digute etorkizuneko helburuak lortzeko.

Honek, gainera, gizarteari gure ekintzen eragina azaltzeko aukera emango digu, eta jendea kontzientziatzeko bidea izango da. Horrela, komunitateak aktiboki parte hartu ahal izango du, hondartzak garbitzen eta plastikoaren erabilera murrizten. Honela, gure osasuna hobetzeko aukera izango dugu, eta aldi berean, itsasoko biodibertsitatea babestuko dugu.

Honek beste ondorio positibo bat ere ekarriko du. Hau, arrainek eta jaten ditugun itsasoko animaliek mikroplastiko gutxiago jatea izango da. Ondorioz, gizakiok jaten ditugun mikroplastiko kantitatea ere murriztu egingo da, eta horrek gure osasunean eragin positiboa izango du. Azken finean, gure ekintzek ez dute soilik ozeanoen osasuna hobetuko, baizik eta gure etorkizuneko belaunaldientzat mundu hobea utziko dugu.

Bestalde, gure produktuak ez du bakarrik gizarteak nahi dituen gauzak asetzen, baizik eta munduaren aurrerapena ematen du. Gure ekimenak ez dira soilik orainaldirako, baizik etorkizuneko belaunaldientzako ere, gure planetaren iraunkortasuna bermatzeko. Gure helburuak eta ekintzak osasunarekin lotuta daude, eta horrek gizartean eragin positiboa izango du. Horrela, gure proposamenak ez dira soilik ingurumenari laguntzeko, baizik eta gizartearen ongizatean ere eragina izango dute.